

46 egunez egun

2013ko apirila

Beasaingo udal aldizkaria

beasaingo



Beasaingo udala



Kudeaketa berria izango du Igartza Monumentu Multzoak

2 iritzia 3 Jon Ordoñez 4-5 Igartzako Monumentu Multzoa 6-7 Mugikortasuna 8 Igartzako
aparkalekua 9 Moira Ceberio, Prebentzio teknikaria 10-11 Laburrak 12 Agenda

Mugikortasuna

Udala oinezkoari tokia emateko pauso desberdinak ematen dabil. Kale nagusia oinezkatu zen lehenengo eta orain Arana kalea eta Bideluze plaza oinezkatzeko lanetan murgilduta gaude bete-betean. Mugikortasun jasangarria dugu helburu, non oinezkoek izango duten lehenetasuna eta atzetik etorriko diren, txirrinduak eta autoak.

Zentzu honetan, erabateko oinezkatzeara ekarriko du Esteban Lasa kalea bi noranzkoa bihurtzeak. Proiektu honekin, erdiguneko trafikoa gehiago lasaitzea lortu nahi da batetik; bestetik, orain lorategi kaletik kale nagusira doazen autoak, Esteban Lasatik ateratzea bideratu nahi da, hor baitauek herriko puntu beltzetako bat, Usurbe antzokiaren bidegurutzean.

Herrian autoen erabilerak arazo handiak sortzen ditu. Horietako bat da erdiguneko aparkatzeko dagoen zailtasuna, errotaio faltaren ondorioz. Arazo honi irtenbidea emateko asmoz dator gure aurtengo erroketako bat, TAO sistema martxan jartzea, hain zuzen ere. TAOrekin erdiguneko bizi diren herritarrei soluzio bat eman nahi zaie, egoiliar txartela prezio ekonomiko batean lortuz

eta TAO gune osoan aparkatzeko aukera emanez; beste alde batetik, herriko merkatarien eskakizunarekin bat egin da, bezeroek errazago izango dute Beasaina etorri eta tramite desberdinak egitea.

Azkenik, TAOren lanketan herritar guztien inplikazioa eskatzen dugu. Gazte, heldu zein adinekoen artean landu behar dugu nolako herria nahi dugun eta zein neurri jarri behar ditugun martxan mugikortasun eredu jasangarria lortzeko eta beraz, herrian erosoan oinezkoa sentiarazteko. Aukera aprobetxatuz, datorren apirilaren 10ean TAOren inguruko lehen bilerara gonbidatzen zaituztegu, Udalaren proposamena lehen eskutik ezagutzeko eta ondoren zuzenean ekarpenak egin ahal izateko.

Argi daukagu, esku artean ditugun proiektu hauek gauzatu ahala, bizi kalitatean gora egingo dugula Beasainen.

Aitor Larburu • udaletik



Desde el Ayuntamiento estamos tratando de dar más espacio a los peatones. Primero peatonalizó Kale Nagusia, y ahora estamos haciendo lo mismo en calle Arana y plaza Bideluze. Nuestro objetivo es conseguir una movilidad sostenible, donde los peatones tengan prioridad. En este sentido, que la calle Esteban Lasa sea bidireccional pretende aliviar el tráfico del centro urbano.

El uso del coche crea muchos problemas en el municipio; no hay más que ver lo que cuesta aparcar en el centro, y eso se debe a la falta de rotación. Para solucionar dicho problema, el reto de este año será la implantación de la OTA. Dicha implantación requiere la implicación de toda la población y aprovechamos para invitaros a la reunión que se celebrará el día 10 de abril, donde se podrá conocer la propuesta del Ayuntamiento y realizar aportaciones.

inkesta Zer iruditzen zaizu aparkaleku arazoa konpontzeko TAO jartzea?



Xabier Iraeta

Beranduegi datorrela, aspaldi etorrira egon behar zuen nire iritzian. Gure lan asko, berehala egitekoak izaten dira, eta aparkatzeko lekuri egoten ez denez, bezeroek bigarren ilaran aparkatu behar izaten dute. Kanpotik etortzen diren langileek betetzen dituzte aparkalekuak.



Marta Cardozo

Me parece fatal. Todo lo que sea pagar, me parece fatal, ya pagamos bastante. Además están comiendo plazas de aparcamiento. Parece que todos tenemos que tener garaje. Además el suelo es del pueblo. Nos deberían de preguntar si estamos de acuerdo o no. Deberían de potenciar el transporte público.



Iñaki Azurmendi

Enkarguak egitera datozenentzat ondo dago, prezio merke batean aparkalekuak ziurtatuta izango dutelako eta merkatariontzat ona izango da hori. Kanpotik lanera datozenek betetzen dituzte aparkaleku asko, eta TAOrekin urrutirago aparkatu beharko dute. Txipa aldatu behar dugu kotxea gutxiago erabiltzeko.

Jon Ordoñez Berriako langilea

«'Berria' egunkariak erronka berriei aurre egitea nahi dute euskaltzaleek»

Hace diez años la Guardia Civil cerró el periódico Euskaldunon Egunkaria, el único periódico en euskara. Con la ayuda y la aportación de la sociedad en junio de 2003 nació Berria. El periodista Jon Ordoñez trabajó en Euskaldunon Egunkaria, y hoy en día trabaja en Berria.

Hamar urte bete berri dira Egunkaria itxi zutenetik. Nola gogoratzen duzu egun hura?

Grisa. Lankide askok esan du hotza duela gogoan, baina niri grisa etortzen zait burura. Aita CAFera lanera sartu zenean jakin nuen Guardia Zibila zebilela inguruetan. Aitak irratian albisteak entzun eta deitu ninduen etxera. Langile Batzordean nengoen garai horretan, eta berehala batzordeko besteak esnatu eta Andoainera joan ginen. Hasiera batean, ez genekien zer gertatuko zen, ezta nortzuk zeuden atxilotuta ere. Egunkaria ixtea sinetsgaitza egiten zitzaigun, baina lehen kolpea pasata konturatu ginen ez zigutela itzuliko. Guardia zibil kaputxadunak, horien harrokeria, armak eta patrolak, atxilotuak eraman zituzten matrikula gabeko furgonetak, ezintasuna...

2003ko ekainean Berria egunkaria sortu arteko tarteak Egunerok bete zuen. Nola koak izan ziren lau hilabete haiek?

Gora-beheratsuk, gorpil zoro bat beza. Berehala hasi ginen lanak banatzen, eta Egunerok biharamunean ateratzeaz gain, gauza askoz ere gehiago egin genituen. Langileen batzarrak, pankartak, mobilizazioak, Eusko Jaurlaritzara bisita langileen egoera azaltzera, langabeziako paperak bete beharra, Beasaingo herri batzordea, kamixetak... Hasieran gauzak egiten genituen jakin gabe nola iritsiko ginen, kazetari lanera itzuliko ginen, zenbatentzako lekua izango zen. Gero helburua jarri genuen, euskarazko beste egunkari bat sortzea, eta hor bai, buru-belarri aritu ginen hura lortu genuen arte.



Jon Ordoñez.

Nolakoak izan dira hamar urte hauek?

Aberasgarriak beti, eta etsigarriak zenbait momentutan. Bagenekien gure aurrekoak Egunkaria sortzeko egin zuten lana, eta erakutsi genuen, gizarteak, gai gine-la beste euskarazko egunkari bat sortzeko, eta aurrera egitea. Lehen urteak euforia handikoak izan ziren, baina gero krisia sumatzen hasi ginen, diru-sarrerak murrizten teknologikoki baliabide gehien behar genituen unean. Berria hasieran hazten joan zen, baina gero krisiaren ondorioz, txikituz ez, uzkurutz joan ginen. Jendearen babesa etenik gabekoa izan da beti, eta horri eskerrak egin dugu aurrera, baina murrizketen kontura erakun-

●● «No podíamos creer que nos iban a cerrar Euskaldunon Egunkaria, pero en seguida nos dimos cuenta que no nos lo devolverían» ●●

deen jarrera bestelakoa izan da.

Zein da gaur egun Berria-ren egoera?

Azken urteetan asko murriztu dira diru-sarrerak, eta horrek eragina izan du etxe barruan ere. Publizitatea jaitsi egin da eta administrazioaren diru-laguntzak ere bai, unerik txarrean. Guk bizi dugun krisia bikoitza baita. Merkatuaren krisiari gehitu zaio prentsaren krisia; trantsizio moduko bat ari gara bizitzen, paperetik pantailetara, eta horrek baliabide ekonomikoak eskatzen ditu inbertitu eta gutxienez erdarazko hedabideen parean egoteko. Asko kosta zitzaigun euskarazko paperezko egunkaria izatea eta orain ezin dugu atzean geratu, bestela belau-naldi gazteek erdarazkoetara joko dute, egunkaria paperean irakurtzeko ohitura galtzen ari baita.

Berrialagunak bilatzen hasi zineten iaz. Zein emaitza ari da izaten?

Herritarren erantzuna esango nioke nik, eta bikaina izan da. Inguruan ez zegoen horrelako kanpainarik martxan hedabide bat sostengatzeko mikromezenasgo moduan, eta garbi geratu dena da euskaltzaleek nahi dutela euskarazko egunkariak erronka berriei aurre egitea. Martxan jarri zenetik ikusi ditugu jendearen ekarpenak ugaritzen, eta esan beharra dago horiek gabe ez ginela gauden lekuan egongo.

Beasainen ikuskizuna egingo duzue Berriaren 10. urteurrena ospatzeko. Zer antolatu duzue?

Apirilaren 20an izango da, 20:00etan, Usurbe antzokian. Metrokoadroka konpainiak 'Zertarako hegoak' obra antzetzuko du. Beasaingoa lehen saioetako bat izango da. Norbanako edo talde gisa gizarte erronketan jarduteak dituen kontraseanek, ahulguneek eta une magikoez jarduten den komedia absurdoa izango da. Aurretik 'Berriak 10 urte bideoa' emango da, erredakzioan grabatutakoa, eta egiten duguna, zergatik egiten dugun eta nola egiten dugun azaltzen duena. Ekainaren 21ean, berriz, jaialdi handia izango da Andoainen.

Igartza Monumentu Multzoaz bete-betean gozatzeko garaia

29 urteko zaharberritze lanak amaituta, Igartzako Monumentu Multzoa ezagutu, gozatu eta erabiltzeko aukera dago, eta Igartza.net webgune berria eta panel informatiboak jarri ditu Udalak.

Historiaz betetako gunea da Igartzako Monumentu Multzoa. 1984an hasi zen Beasaingo Udala ondare historikoa berreskuratzeko lanean, zurezko presa berreskuratuz. Pausoz pauso, Beasainen historia, iragana eta jatorria ezagutzeko aukera izan dute beasaingarrek.

Behin zaharberritze lanak bukatu ondoren, 2012ko udaberrian, gogoeta estrategikoa egin zuen Beasaingo Udalak herriko eragile desberdinekin, eta Igartzari bere balioa eta nortasuna emango dioten lan ildoak eta ekintzak bildu zituen txostena osatu zuten. Bi helburu zehazten dira bertan. Batetik, herritarrei ondare horren transmisioa egitea. Bestetik, herriko merkatarien zein kultur programaren (hitzaldiak, kontzertuak, batzarrak, erakusketa...) erakusleihen bat izatea.

Igartza.net webgunea

Teknologia berriez baliatu da Beasaingo Udala, eta aurkeztu berria du herritarren eskura egongo den tresna: *igartza.net*.

Beasaingo Bikoa Garapenak enpresak egin du atari berria. Lau hizkuntzatango dago webgunea: euskaraz, gaztelez, ingelesez eta frantsesez.

Hiru atal nagusi ditu webguneak. Historia, kultur ondarea eta zerbitzuak. Az-



Igartza.net webgune berria.

ken atal horretatik, erreserbatu daitezke Igartza Monumentu Multzoak eskaintzen dituen zerbitzuak. Hain zuzen ere, zortzi zerbitzu desberdin eskaintzen ditu webguneak: kultur ekintzak, kongresuak eta bilerak, bisita gidatuak, gastronomia, Donejakue estatua, hotelak eta jatetxeak, ezkontzak eta hileta zibilak. Eskaerak, web orriko formulario bat beteta egin daitezke.

Igartzan egiten diren ekitaldiak bildu dituen agenda ere etengabe berrituz joango da. Youtuben Igartza Beasain izeneko kanala ere ireki dute.

Panel informatiboak


Hamar panel informatibo ere jarri ditu Udalak, Igartza Monumentu Multzoa osatzen duten kultur ondarearen eta historiaren berri emateko. Panelak ere lau hizkuntzatango egin dituzte.

Euskarri horietan teknologia berriei ere lekua egin diete eta QR kodeak ere badaude bertan, smartphone bidez Igartza garai batean nolakoa zen irudikatzen laguntzen duten infografiak eta bideoak momentuan ikusteko. Enrike Lekuonak egin dituen infografiak webgunean ere ikus daitezke.

La renovación del conjunto monumental de Igartza comenzó el año 1984, y tras finalizar la renovación, a partir de la primavera del año pasado, se comenzó a realizar una reflexión estratégica con la participación ciudadana para ver qué uso se le podía dar. Se establecieron dos objetivos: Transmitir el patrimonio a la población y ser escaparate de diversos programas culturales. Para poder llevar a cabo estos objetivos, se ha puesto en marcha una nueva página

•• **Teknologia berriez baliatu da Beasaingo Udala, eta aurkeztu berria du herritarren eskura egongo den tresna: *igartza.net*** ••

web: *igartza.net*. La página está en cuatro idiomas y hay tres secciones principales: Historia, Patrimonio Cultural y Servicios. En esta última se da la opción de reservar los servicios que ofrece el conjunto monumental, rellenando unos formularios en la web. Además de la web, se han instalado 10 paneles informativos cerca del río que contienen códigos QR, en los que a través del móvil se pueden ver diferentes infografías del conjunto monumental.



Igartza urtez urte

- 1984. Zurezko presaren berreskurapena.
- 1994-1999. Gazte auzolanderiak errotan eta jauregian.
- 2000. Beasaingo Paperak Igartzaren inguruko monografikoa.
- 2000. Beasaingo Udalak Igartzako Monumentu Historikoaren jabegoa berreskuratzen du.
- 2001-2002. Burdinolaren indusketarako arkeologikoa.
- 2004-2005. Igartzako lorategien urbanizazioa.
- 2005-2006. Burdinolaren zaharberritzea.
- 2006. Zubiaren eta galtzadaren zaharberritzea.
- 2008-2010. Dolarea hotel moduan egokitzen da.
- 2008-2011. Jauregiaren zaharberritzea.
- 2010-2011. Zurezko presaren garraioaren eta gordailuaren eraikuntza.
- 2011. Donejakue bideko aterpea irekitzen da.
- 2012. Ermitaren zaharberritzea, errotaren labea eta harrera bulegoa.
- 2013. Igartzak.net webgunearen aurkezpena.



Udalak kudeatuko du orain Igartzako Monumentu Multzoa

2011ko martxoaren 15etik 2013ko martxoaren 15era, Dolarea Hotela S.L.k izan du Igartzako Monumentu Multzoa kudeatzeko eta ustiatzeko ardura. Orain, Dolarea Hotela S.L. enpresarekin urtebetez luzatu du kontratua Udalak, baina kontratuan aldaketa sakonak egin dira. Lehen bi urte horietan 30.000 euro (gehi BEZ) eman zaizkio Dolarea Hotela enpresari Monumentu Multzo osoaren garbiketa, mantenu lanak, ateen irekiera eta itxiera eta edozein ekitaldi dagoenean behar diren baliabideak erabiltzaileen eskura jarzteagatik. Gainera urtean 265 egun zituen Monumentu Multzoa kudeatu eta ustiatzeko, pleguan aurkeztu zituen kultur ekintza desberdinak antolatzeke helburuarekin. Horrela, orain arte, Udalak 100 egun bakarrik zituen bere esku, eraikuntza erabili ahal izateko.

Herriarrei ondare honen transmisioa egiteko eta herriko merkatarien zein kultur programaren erakusleho izatea lor-

tzeko, Udalak ezinbestekoa ikusten du Igartzako Monumentu multzoa berak kudeatzea urte osoan. Horrela, aurrerantzean, kontratuan egin diren aldaketa sakonak tarteko, urte guztian izango du eskumena eraikuntza erabili ahal izateko.

Orain arte Igartzako kontratuan zegoen lorezaintza lana, herriko beste lorategiak kudeatzen dituen enpresaren esku utzi ditu orain Udalak. Beraz aurrerantzean, lorategiekin lotutako zerbitzuak bateratu egingo dira, eta Goroldi arduratuko da Monumentu Multzoaren inguruko lorategiak zaintzeaz. Lan honen kostua 9.000 eurokoa da, beraz Dolarea S.L.ri azken bi urteetan ordaintzen zitzaiena zenbateko horretan jaitzi da, 30.000 eurotik 21.000 eurora pasatuz.

Udalaren asmoa, datorren urtean plegu berriak diseinatu eta Monumentu Multzoa kudeatzeko lehiaketa berri bat egitea da.



Desde marzo de 2011 Dolarea Hotela S.L. se ha encargado de administrar y explotar el conjunto monumental de Igartza. El Ayuntamiento ha renovado este contrato por un año con cambios sustanciales.

En estos dos últimos años Dolarea ha recibido 30.000 euros (mas IVA) y ahora recibirá 21.000 euros (mas IVA). Los servicios de jardinería que hasta ahora gestionaba Dolarea, ahora los gestio-

nará el grupo Goroldi, el mismo que se encarga de los trabajos del pueblo.

Además, hasta ahora el Ayuntamiento tenía derecho de utilizar el conjunto durante 100 días, y ahora lo podrá utilizar los 365 días del año.

Para el año que viene, el Ayuntamiento tiene intención de crear nuevos pliegos y realizar un concurso para la administración del conjunto monumental.

Mugikortasuna hobetzeko

Esteban Lasa kaleari bi noranzko

Mugikortasuna hobetzeko plangintzaren barruan Beasaingo Udalak bi neurri hartuko ditu: Esteban Lasa kaleko aldapa bi noranzkotan jartzea eta herriko hainbat gunetan TAO sistema ezartzea.

Beasaingo Udalak egindako mugikortasun diagnostikoaren puntuetako bat aparkalekuen azterketa izan zen. Datuen arabera, Beasainen une hartan zeuden auto guztiak baino 500 aparkaleku gehiago zeudela ikusi zen eta, beraz, gainerako aparkalekuak betetzen zituzten autoak herritarrek ez zirenenak izaten direla ondorioztatu zen. Horrez gain, erdiguneko aparkaleku faltaren arazoa errotazio faltaren ondorioz sortzen zela ere ikusi zen.

Diagnostikoa amaitu ondoren, 2004ko azaroan zirkulazioa lasaitzeko proposamenak egiten hasi ziren. Proposamen horietako batzuk jada aurrera eramán dira. Orain, beste bi proposamenei helduko die Udalak. Batetik, TAO ezartzea erabaki du Udalak. Urte amaiera honetan hasi eta datorren urte hasierarako normaltasunez ezarriko da.

Bestetik, Esteban Lasa kaleko aldapa bi norabidetakoa jarriko du Udalak. Aldaketa horrekin, jada oinezkoentzako den Kale Nagusitik autoak pasatzea ekidingo da.

Norabide berria egin ahal izateko, Esteban Lasako aldapako mendiaren al-



Esteban Lasa kalean bi norantzatan zirkulatu ahal izango da.

dean gelditzen diren espaloia eta aparkalekuak kenduko dituzte: 19 aparkaleku guztira. Hilario Urretabizkaia Udal-

•• Erdiguneko aparkaleku faltaren arazoa errotazio faltaren ondorioz sortzen dela erakutsi du mugikortasun diagnostikoak ••

tzainburuaren esanetan, mendiaren aldeko aparkalekuak kenduko dituzte, «honela jendea atarietatik irten eta espaloia izaten jarraituko du eta ez dute biderik gurutzatu beharrik izango autoa hartzeko». Esteban Lasa kalean aparkaleku batzuk galdu egingo badira ere, TAO jarrita bertako bizilagunek kale horretan bertan dituzten aparkalekuak (egoiliarrentzako txartelarekin) erabili ahal izango dituzte, eta baita Gipuzkoa plazakoak ere.

Los resultados del diagnóstico de movilidad mostraron que había 500 aparcamientos más que vehículos, y que por lo tanto, los que llenan los aparcamientos son coches que vienen de otros municipios.

Tras finalizar dicho diagnóstico, se propusieron alternativas para solucionar los problemas diagnosticados. Una de las alternativas es implantar la OTA.

Otra propuesta para que la se convierta aún más peatonal, es que se pudiera circular en los dos sentidos por la calle Esteban Lasa. Gracias a esta me-


dida no habrá necesidad de utilizar la calle mayor, ni se tendrá que ir hasta la Plaza Barrendain para ir hacia Ordizia.

Para habilitar un carril nuevo en la calle Esteban Lasa con el fin de que los coches puedan circular en los dos sentidos, es necesario quitar una línea de aparcamientos y una acera. Se propone quitar la acera y la línea de aparcamientos que está en el lado del muro.

Con esto se quiere evitar quitar las aceras que dan acceso a los portales de las viviendas que hay al otro lado y

tener los vehículos cerca de los portales, sin tener que cruzar la carretera para poder acceder a ellos.

En total habrá que quitar 19 aparcamientos que existen en la actualidad en el lado del monte. Este descenso de aparcamientos se compensará con la OTA, ya que aparcarán menos coches en la zona, o al menos los aparcarán por menos tiempo. Además las personas residentes en esa zona podrán aparcar con la tarjeta de residente o utilizar el aparcamiento de la plaza Gipuzkoa.



TAO sistema erdigunean

Hiru TAO mota ezberdin jartzea aurreikusten du Udalak, kanpotik datozen ibilgailuek bertako bizilagunei ahalik eta traba gutxien sortzeko. Herriarrek egoiliar txartela lortu ahal izango dute.

Beasainen dauden aparkaleku arazoak konpontzeko, Udalak herri erdigunean, TAO sistema jarriko du. Sistemaren proposamena herriarrek eta merkatariekin landu nahi du Udalak.

Hiru TAO mota jartzea aurreikusten da: errotazio altukoa (Erauskin plaza), TAO biguna (Gipuzkoa plaza) eta gehienez lau orduetan aparkatzeko aukera dagoena (Oriamendi 30era arte, Esteban Lasa eta Gernika pasealekua). Errotazio altuko TAO guneetan, gehienez 30 minutuz eduki ahal izango da autoa aparkatuta; TAO biguna dagoen lekuetan egun erdiz aparkatu ahal izango da; eta gehienez lau orduz aparka daitekeen guneetan orduz ordu joango da igotzen kostua.

TAO eremu barruko herriarrek, errotazio altuko guneetan izan ezik, gaine-rako aparkaleku guztietan aparkatu ahal izango dute urtean kuota txiki bat ordainduaz.

Urte amaieran jartzen hasi eta datoren urte hasierarako normaltasunez ezarrita egongo dela aurreikusten dute

Beasaingo Udalean. Jasotako dirua TAOko langileak, makinak eta TAOrekin lotutako lanak ordaintzeko erabili.

Bilera/reunion

TAO sistemaren proposamena ezagutzera emateko eta ekarpenak jasotzeko, herriarrek eta merkatariekin bilerak egingo ditu Udalak. Lehen bilera apirilaren 10ean, egingo da 19:00etan lgartzako jauregian.

El Ayuntamiento realizará reuniones para presentar el sistema de OTA, y recibir aportaciones de comerciantes y de la población. La primera reunión será el 10 de abril, a las 19:00 de la tarde en el palacio de Igartza.

El Ayuntamiento implantará la OTA en el centro del pueblo, para solucionar el problema de aparcamientos. Se realizarán reuniones para analizar la implantación del sistema. Los y las beasaindarras podrán obtener la tarjeta residente pagando el importe correspondiente.

Habrán tres tipos de OTA: Una de alta rotación (Plaza Erauskin), otra blanda (Plaza Gipuzkoa) y otra en la que se podrá aparcarse como mucho durante cuatro horas (Hasta Oriamendi 30, San Inazio, Esteban Lasa y Gernika pasealekua).

En las zonas de alta rotación los vehículos podrán aparcarse un tiempo máximo de 30 minutos.

En las zonas de OTA blanda se podrá aparcarse durante medio día y en las zonas en las que se puede aparcarse como mucho durante cuatro horas, la tarifa irá subiendo de hora en hora.

La OTA se implantará hacia finales de este año. Los ingresos se utilizarán para pagar los costos de la OTA (trabajos, personal y máquinas).

Herritarren eskakizunei erantzunez egingo da Igartzako aparkalekua


110 ibilgailurentzako aparkalekua eta autokarabanentzako zerbitzu gunea egokituko dute Igartzako aparkalekuan. 300.000 euroko aurrekontua aurreikusten da egokitze lanetarako.

Igartza auzoan dagoen aparkalekua eraberritzeko asmoa dauka Beasaingo Udalak. Hasierako asmoa egun zegoenari txukundu bat ematea bazen ere, herritarrek egindako eskakizunei erantzunez, txukunketa baino zerbaite gehiago egiteko asmoa dago orain: 110 ibilgailu ingururentzako tokia egitea eta autokarabanentzako mantenu gune bat ere jartzekoa.

Autokarabanentzako gunea

Autokarabanek ur grisak eta beltzak bota ahal izateko gune bat egokituko du Udalak eta, era berean, energia elektrikoa eta ura hartzeko aukera ere eman go da bertan.

Zerbitzu horiengatik erabiltzaileek diru kantitate bat ordaindu beharko dute. Txanponen ordeiz, beste gune batzuetan erositako fitxak erabiltzeko sistema jartzeko asmoa dauka Udalak, lapurretak ekiditeko. Irudian ikusten den gurutze gorrian kokatuko dituzte zerbitzuak. Autokarabanentzako zerbitzu berri honekin, Goierriin autokarabana-turismoa egiten dutenen munduan puntu bat gehiago bihurtuko da Beasain eta herriko autokarabanentzat ere baliagarri izango da.



Igartzako aparkaleku berriaren planoak.

Aparkaleku honetan energia aurrezteko LED argiteria jarriko dute eta uraren eta elektrizitatearen irteerak egongo dira. 300.000 euroko aurrekontua beharko da horretarako. Aurrez 20.000 euroko aurrekontua zegoen, eta aurre-

kontuetan aldatetarik egin beharko dira.

Lehiaketara aterako dute proiektua eta, behin nori eman erabakitakoan, hilabete bat edo bitan egitea aurreikusten da, uztail edo abuztu alderako, aurrekontu berria onartzearen arabera.

En un principio se contemplaba hacer pequeñas mejoras en el parking de Igartza. Pero a petición de la población, en breve se realizará una obra mayor en la que se pretende mejorar las condiciones del aparcamiento actual y ofrecer servicio a las autocaravanas.

Se trata de un aparcamiento asfaltado que tendrá 110 plazas con alumbrado LED y opción de obtener electricidad y agua. Además se adecuará un aparcamiento para verter aguas grises y negras.

Con todo esto se pretende que Beasain se convierta en otro punto de referencia para los que viajan de esta mane-

●● Autokarabanek ur grisak eta beltzak bota ahal izateko gune bat egokituko du Udalak Igartzako aparkalekuan ●●

ra, y a su vez, dar servicio a las autocaravanas que hay en Beasain.

Las personas que quieran obtener electricidad o agua lo tendrán que hacer en el punto que se habilitará en el centro del parking, (marcado con una cruz en el plano). Para utilizar estos ser-

vicios se deberá pagar un pequeño importe, pero se tendrán que utilizar fichas habrá que comprar en otros puntos. Con esto, se pretende que no se abuse de dichas prestaciones y evitar los robos.

El presupuesto que había para realizar las pequeñas modificaciones era de 20.000 euros, mientras que este nuevo proyecto precisará de un presupuesto de 300.000 euros.

Las obras comenzarán hacia julio o agosto, dependiendo de cuándo se apruebe el nuevo presupuesto y se realice el concurso para la elección de la empresa.

Moira Ceberio Prebentziorako teknikaria

“Informazioa eta heziketa dira prebentzio neurri onenak»

Moira Ceberio es la nueva técnica de Prevención del Ayuntamiento. Su objetivo es realizar un Plan de Prevención sobre el consumo de drogas y otras adicciones entre adolescentes y jóvenes de Beasain. Para ello trabajará con beasaindarras de entre 11 y 25 años. Los lunes y los miércoles estará en la oficina de Bienestar Social.

Zein helburu daukazue?

Adin txikiko, nerabe eta gazteentzako droga eta bestelako adikzioei buruzko prebentzio plana sortzea da helburua. Horretarako nerabeen eta gazteen partaidetza sustatu nahi dugu droga kontsumoan eta gainerako kontsumoen prebentzio arloan. Droga kontsumo eta gainerako kontsumoen prebentzioan egingo diren programetan edo antolatuko diren ekintzetan nerabeek eta gazteek ere parte hartzea nahi dugu. Azkenik, drogomenpekotasun prebentzioan eta osasun arloan adin txikikoei, nerabeei eta gazteei informazio eta aholkularitza zerbitzua eskaintzea ere nahi dugu. Gazteen iritziak, kezak eta zalantzak entzun nahi ditugu, eta horretarako gune bat sortu nahi dugu.

Zein adin bitarteko nerabe eta gazteekin lan egingo duzue?

11-25 urteko adin tartearaz hitz egiten ari gara.

Zein adinetan hasten dira gazteak kontsumitzen?

Tabakoarekin 13 urterekin hasten dira, eta alkoholarekin ere hortxe-hortxe, beti festa giroan. Kuadrillan bat erretzen hasten baldin bada pertsona berri bat erretzen hastea errazten du. Alkohola batez ere, asteburu normaletan baino gehiago, festetan kontsumitzen dute.

Bestelako drogekin, legez kanpoko drogekin (kokaina, estasia, spida, ketamina...) horiekin beranduago hasten dira. Kokaina adibidez, 20 urtera arte ez dira kontsumitzen hasten. Estasia eta

spida, dantzalekuetan, gau osoa esna iraun beharreko festetara joaten direnean kontsumitzen dute. Dena den, oso gauza inportantea esan beharra dago: droga kontsumo guztiak azken urteetan jaisten ari dira. Horrek esan nahi du, zerbait ondo egiten ari garela prebentzio arlo horretan.

Zein arazo antzeman dituzue?

Kalean droga kontsumoa ikusten dela eta zenbait auzotan gazteek dituzten txokoetan substantzia desberdinak ikusten direla. Boteloia ere egiten dela festaren bat dagoenean.

Prebentziorik onena informazioa al da?

Informazioa eta heziketa. Gurasoen paterara oso garrantzitsua da.

Gurasoeekin lanik egiteko asmorik baduzue?

Oraingoz ez daukagu lehenengo helburretan jarrita baina gure asmoa gurasoei lana egitea da. Inportantea iruditzen zaigu, adin txikikoen jokabide osasuntsuak sustatu nahi baditugu gurasoei herramienta edo pautak ematea. Batez ere, gurasoen eta seme-alaben ar-

●● «La juventud empieza a consumir tabaco y alcohol a los 13 años; las drogas ilegales más tarde» ●●

teko harremana, komunikazioa, ahalik eta onena izan dadin.

Gaur egun, zorionez, modan dago osasuna zaintzea. Kirol gehiago egiten dugu, gero eta gehiago zaintzen dugu elikadura, baina ohitura osasuntsu horiei beste atal hau gehituko nioke: kontsumorik ez. Azken batean, kontsumoa ahalik eta gehiena atzeratzea lortu behar dugu. Badakigu gertatuko dela, ezinbestekoa izango da, baina guk ika-



Moira Ceberio, Ongizateko bulegoan.

si behar duguna da, elkarbizitza horretan ahalik eta arriskurik gutxiena izan dezatela gazteek.

Arriskuak gutxitu diozunean, zer esan nahi duzu?

Kontsumo bat gertatzen denean, kontsumo horrek arrisku batzuk ditu. Adibidez, gehiegizko alkohol kontsumoa egiten badugu, koma etilikoan bukatu dezakegu. Beraz, lortu behar dugu gaztea ez dadila koma etilikoraino iritsi. Beste adibide bat: badaude gazte batzuk, 16-18 urte artean, astean behin baino gehiagotan kanabisa erretzen dutenak. Gazte horrek konturatu behar du, kontzentratzeko eta memorizatzeke eragina duela. Guk saiatu behar dugu, gaztea konturatu dadila kanabisa erretzeak kontzentrazioa eta memorizatze prozesua galerazten duela, arreta mantentzea galerazi egiten duela. Eta horrek guztiak ondorio txarrak dituela, ikasketak ez dituelako ondo eramango.

Teknologia berrien ondorioei ere arreta berezia jarri nahi diozue. Droga berria dela esan liteke?

Orain arte drogaz ari garenean, substantziez aritu izan gara. Baina beste adikzio batzuk aipatu nahi ditugu: jokorekin, Internetarekin eta telefono mugikorarekin dagoen adikzioa.


'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina jarri du martxan Udalak

Irakurzaletasuna, liburutegiak, euskal literatura ezagutzea eta euskal liburutegintza indartzeko helburuz, apirilaren 23tik ekainaren 30era kanpaina berezia egingo du Udalak.

Beachaingo Udalak, Topagunearekin batera, 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina jarriko du martxan apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko egunean. Ekainaren 30era arte iraungo du, eta Beachaingo herritar guztiek izango dute kanpainen parte hartzeko eta abantailez baliatzeko aukera.

Helburuak

Lau helburu ditu 'Irakurri, oparitu eta gozatu' kanpainak: irakurzaletasuna sustatzea, liburutegi publikoak eta herritarrek harremanetan jartzea, euskarazko literatura ezagutzea, eta euskal liburutegintza indartzea. Helburu horiek lortzeko herritarren inplikazioa bilatu nahi du Beachaingo Udalak. «Euskarazko kontsumoa bultzatu nahi dugu. Ez bakarrik umeena, helduena ere bai. Eta irakurleak euskarara gerturatu nahi ditugu, ikusteko euskaraz ere denetik dagoela irarutzeko», dio Ane Barandiaran Udaleko Euskara teknikariak. Herritarrek batera, Udal Bibliotekak eta Mirentxu liburutegia protagonismo berezia izango dute kanpainen.



Funtzionamendua

- **1. urratsa:** Herritarrek udal liburutegiko mailegu zerbitzua erabilita bertako euskarazko liburu bat eraman- go du etxera han irakurtzeko.
- **2. urratsa:** Behin irakurrita liburutegira itzuliko du liburu eta irakurle fitxa erraz bat bete beharko du bertan.
- **3. urratsa:** Liburutegiko arduradunak erosketara txekia emango dio irakurleari eta txekiarekin %25 merkeago erosiko du norbaiti oparituko dion euskarazko liburu bat. Euskara ikasleentzat eta Mintzalagunentzat erosketara txekien balioa %50ekoa izango da.

Hileroko zozketa

Deskontuak lortzeaz gain, Udal Biblioteka maitezkan eta ekainean, hilabete bakoitzean liburutegian maileguan liburu bat hartu dutenen artean, 30 euroko erosketara txekia zozkatuko dituzte.

Aprovechando el Día Internacional del Libro –el 23 de abril–, el Ayuntamiento, junto con Topagunea, ofrecerá cheques descuento de un 25 % a todas las personas que cojan en préstamo un libro en euskara. La campaña 'Irakurri, gozatu eta oparitu' durará hasta el 30 de junio, y el objetivo es acercar la lectura y al euskara a las personas.

Para unirse a la campaña, sólo hay que coger en préstamo un libro en euskara de la biblioteca municipal, leerlo en casa y al devolverlo rellenar una fácil ficha. Automáticamente, el lector recibirá un cheque que podrá utilizarlo en la librería Mirentxu al comprar otro libro en euskara. Las personas que estén estudiando euskara o sean Mintzalaguna recibirán un cheque descuento del 50%.

Errenta Aitorpena euskaraz egiteko deia

2012ko Errenta Aitorpena egiteko epea apirilaren 16an hasi eta ekainaren 25ean amaituko da, biak barne. Aurten ere, Beachaingo Udalak Errenta Aitorpena euskaraz egitera animatu nahi ditu beasaindarrak. Urtero euskaraz egiten dutenen kopurua handituz badoa ere, aurten bultzada berezia eman nahi zaio. Goierri, 5.000 aitorpen euskaraz egitea jarri dute erronka.

El plazo para hacer la Declaración de la Renta de 2012 comenzará el 16 de abril y terminará el 25 de junio. Un año más, el Ayuntamiento de Beasain anima a la población a hacer la Declaración de la Renta de 2012 en euskera. Cada año va en aumento el número de personas que hacen la Declaración en euskara, y este año el objetivo es que en Goierri sean 5.000 las personas que lo hagan en euskera.

	Aitorpenak guztira	Aitorpenak euskaraz	Euskarazkoen %
2009	7.452	624	% 8,37
2010	7.465	729	% 9,77
2011	7.514	858	%11,42

Soinu tresnen tailerra eta erakusketa

Ostadar dantza taldeak soinu tresnen tailerra eta erakusketa antolatuko du, Igartzako jauregian. Bertan, soinu tresnak ezagutu, ikusi, jo eta entzuteko aukera izango da apirilaren 15ean (18:30-20:00), 16an (19:00-20:30), 18an (19:30-21:00) eta 20an (11:00-13:30).

El grupo de danzas Ostadar ha organizado un taller-exposición de instrumentos musicales. El 15 (18:30-20:00), el 16 (19:00-20:30), el 18 (19:30-21:00) y el 20 abril (11:00-13:30) se podrán ver y tocar los instrumentos de la exposición.

Udaberriko bertso jaialdia apirilaren 13an

Apirilaren 13an, iluntzeko 19:00etan, III. Udaberriko bertso jaialdia antolatuko du Arrano Kultur Elkartek. Gernika pasealekuko pilotalekuan izango da, dohanik. Jon Maia, Beñat Gaztelumendi, Odei Barroso eta Iker Zubeldia ariko dira kantuan. Gai jartzen, berriz, Irati Arrieta. Bertsoarekin lotuta, bezperan, apirilaren 12an, Bertsomoviedak antolatutako lehiaketaren sari banaketa egingo da Igartzako jauregian. Aurten arrakasta izan du lehiaketak eta 33 lan aurkeztu dira, iaz baino sei gehiago: helduen mailan 10 lan eta gazteetan 23.

Arrano Kultur Elkartea ha organizado el III. festival de bersos de primavera, con los bersolaris Jon Maia, Beñat Gaztelumendi, Odei Barroso e Iker Zubeldia. Será el 13 de abril, a las 19:00 de la tarde, en el frontón de Gernika pasealekua.



Txan magoa Usurbe antzokian

Haurrentzako programazioaren barruan, azkeneko saioa izango da apirilaren 14an, arratsaldeko 17:00etan, Usurbe antzokian: Txan magoa. Magiaren erreinuan sartzeko aukera emango du Txan magoak. Zorroztu zentzuak, ahaztu orain arte ikasitakoa eta prestatu bidaia magiko bezain zoragarria baiten partaide izateko.

Dentro de la programación infantil, el próximo 14 de abril Txan Magoa actuará en Usurbe Antzokia, a las 17:00 de la tarde.

Euskal Herriko Itzulia apirilaren 5ean iritsiko da Beasaina

Txirrindularitzaren festa izango da apirilaren 5a eta 6a Beasainen. Txirrindularirik onenak ikusteko aukera izango da Euskal Herriko Itzuliaren azkeneko bi etapetan. Ostiralean, apirilaren 5ean, Eibarren abiatuta, Mandubiatik (14:30ean) iritsiko dira txirrindulariak. Goierriko herrietan barrena lehian aritu ondoren, arratsaldeko 17:00etan aurreikusten da etapa bukatzea. Nafarroa etorbideko 13an, Jauregi Optikaren parean egongo da helmuga jarrita. Apirilaren 6ko etapa, berriz, Beasain-Beasain erlojupekoa izango da. Lehenengo txirrindularia 14:10ean abiatuko da Graficas San Martin (Nafarroa Etorbidea, 41) paretik. Azkeneko txirrindularia 17:15 aldean helmugaratzea aurreikusten da. Larunbateko helmuga ere, Optica Jauregi parean egongo da.

Egun horietan beasaindarrei pazientzia edukitzeko eskatu diete Loinatz Txirrindulari elkarteak, ostiralean 14:00etatik 18:00etara eta larunbatean 13:30etik 18:00etara trafikoa itxita egongo da eta.

El próximo 5 y 6 de abril podremos disfrutar del ciclismo de máximo nivel, ya que llegará la Vuelta al País Vasco a Beasain. El 5 entrará en Goierri desde Mandubia (14:30). La etapa terminará hacia las 17:00, delante de la Optica Jauregi (Nafarroa Etorbidea, 13). El sábado, en la contrareloj, el primer ciclista saldrá a las 14:10 (delante de Gráficas San Martin, Nafarroa Etorbidea, 41). Según las previsiones, el último corredor llegará hacia las 17:15 a la meta.



Loinatz Txirrindulari Elkarte 50. urteurrena ospatzen ari da.

Loinatz jaietako kartela bozkatzeko aukera, Internetez

Aurten ere, Loinatz jaietako kartela herritarrek aukeratzeko dute, Interneten www.beasain.net helbidean jarriko den estekaren bitartez. Udalak bertan erakutsiko ditu 15 urtetik gorakoek lehiaketara bidalitako lanak. Lan bakoitzak zenbaki bat eramango du eta apirilaren 5etik 15era bitartean bozkatu ahal izango da. Kartela aukeratzeko bozketan Beasainen erroldatutako herritarrek eta NAN dutenek parte hartu ahal izango dute. Pertsona bakoitzak bozka bakarra eman beharko du. Epaimahaiak herritarrek bozkatutako bost lan horietako bat aukeratzeko du. Apirilaren 18a baino lehen emango du Udalak epaia.

También este año se podrá elegir el cartel de fiestas por internet. Para ello, el Ayuntamiento pondrá todos los carteles de la categoría de adultos que se han presentado al concurso en la página web www.beasain.net. Cada persona podrá dar un voto. Será obligatorio estar empadronado en Beasain y tener el DNI. El jurado tendrá la última palabra: elegirá el cartel entre los cinco más votados.

Berdintasun Foroa eta hitzaldia

Berdintasun sailetik Udalak martxan jarri duen sentsibilizazio kanpainarekin jarraituz, apirilaren 19an, 'Mujeres malqueridas' hitzaldia emango du Mariela Michelena Psikoterapeutak, irakasleak eta idazleak, Igartzako jauregian 18:30ean. Apirilaren 29an berriz, berdintasunaren aldeko hausnarketa bultzatzen duen Foroa bilduko da, arratsaldeko 18:30ean Udaltxeko Batzar Aretoan.

El Ayuntamiento ha organizado dos actos: el 19 de abril conferencia en Igartza a las 18:30 a cargo de la Psicoterapeuta, Profesora y Escritora Mariela Michelena, bajo el título 'Mujeres malqueridas'; y el día 29, a las 18:30, en el Salón de Plenos la reunión mensual del Foro por la igualdad.



Musika Eskolako ikasleek entzunaldi didaktikoa egingo dute Usurbe antzokian.

5-6 ostirala-larunbata

Euskal Herriko txirrindulari Itzulia.

5 ostirala

22:00 Pilota jaialdia: Promozio Txapelketako finalurrekoak eta Olaizola I-Mendizabal II Olaetxea-Apraizen aurka. Antzizar kiroldegian.

12 ostirala

19:00 Bertsomovieda lehiaketaren sari banaketa. Igartzako jauregia. Antolatzailea: Arrano kultur elkarte.

13 larunbata

19:00 III. Udaberriko bertso jaialdia. Gernika Pasealekuko pilotalekuan. Antolatzailea: Arrano kultur elkarte.

14 igandea

17:00 Txan Magoaren 'Ezer ez da dirudiena'. Usurbe antzokian.

16 asteartea

09:30 Haurrentzako zinea euskaraz: 'Martina'. Usurbe antzokian.

19 ostirala

18:30 Hitzaldia: 'Mujeres malqueridas'. Hizlaria: Mariela Michelena. Igartzako jauregia.

20:00 Antzerki eskolarra Usurbe antzokian. Antolatzailea: La Salle-San Jose ikastetxea.

20 larunbata

09:30 Murumendiko Burdin Aroko aztarnategira txangoa, Suhar arkeologia taldeko Ander Arreseren gidaritzapean. Loinazko San Martin plazatik abiatuta.

20:00 Berria egunkariaren 10. urteurreneko jaialdia: Berriari buruzko ikus entzunekoa eta Metrokoadroka antzerki konpainiaren 'Zertarako hegoak'. Usurbe antzokian.

23 asteartea

17:30 Ipuin kontaketa: Maite Arreseren 'Haizearen mezua'. Udal biblioteka.

26 ostirala

15:00 Musika Eskolako ikasleen entzunaldi didaktikoa. Usurbe antzokian.

BEASAINGO GAZTETXEA

5 ostirala

21:00 Jangela begetarianoa. Aurretik hitzaldia.

19 ostirala

18:00 Bizi Tokiko Gorka Torreren hitzaldia. 21:00 jangela begetarianoa.

20 larunbata

22:30 Kontzertua.

IV. Pilota Txapelketa Herrikoa

Apirileko ostiral iluntzeetan eta igandeetan, arratsaldeko 19:00etan hasita, Beasaingo IV. Pilota Txapelketa Herrikoia partidak jokatu dira, Gernika Pasealekuko pilotalekuan.

Erakusketak

Apirilak 8-21: Ostadar dantza taldearen soinu tresnen tailerra eta erakusketa. Igartzako jauregia.

Apirilak 12-21: Argizpi argazkizale elkarte bazkideen argazki erakusketa. Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.

Apirilak 25-maiatzak 5: Lemniskatak antolatuta, Orkli kooperatibaren produktuen erakusketa. Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.

Jarraitu Beasaingo udal informazioa Interneten, facebook eta twitter-ean



beasain egunez egun

Argitaratzailea: Beasaingo Udala
Helbidea: Loinazko San Martin plaza
Posta elektronikoa: udala@beasain.net

Telefona: 943 02 80 50
Webgunea: www.beasain.org
Diseinua: Bidera Zerbitzuak